



## Salgai arriskutsuen trafikoa eta garraio bereziak debekatuta daude AP-1ean Bergara eta Maltzaga artean

*2025eko maiatzean Lesarriko tunela birgaitzeko lanak amaitu arte*

Lesarriko tunela Behobiarako noranzkoan osorik birgaitzeko obregatik, eta segurtasun-arrazoiak medio, salgai arriskutsuen garraioak eta 3 metro baino gehiagoko zabalera eta 4,5 metro altuera duten garraio bereziak ezin dute AP-1 autobidetik zirkulatu bi noranzkoetan. Murrizketak Maltzagako AP-8ko lotunearen eta Bergarako AP-636ko lotunearen arteko zatiari eragiten dio, eta tunela birgaitzeko lanak 2025eko maiatzean amaitu arte iraungo du. Autobidearen zati hori salgai arriskutsuentzako ibilbideen sarean (SAIS) sartuta dago. Bestalde, lanek irauten duten bitartean, Lesarriko tuneleko abiadura orduko 80km-takoa izango da gehienez, eta radarraren bidez kontrolatuko da.



### Prohibidos los tráficos de mercancías peligrosas y transportes especiales en la AP-1 entre Bergara y Maltzaga

*Hasta finalizar los trabajos de rehabilitación del túnel de Lesarri en mayo de 2025*

Con motivo de las obras de rehabilitación integral del túnel de Lesarri en sentido Behobia y por motivos de seguridad, los transportes de mercancías peligrosas y los especiales de más de 3 metros de ancho y 4,5 de alto no pueden circular por la autopista AP-1 en ambos sentidos. La restricción afecta al tramo entre el enlace de la AP-8 en Maltzaga y el enlace de la AP-636 en Bergara y se mantendrá hasta la finalización de las obras de rehabilitación del túnel en mayo de 2025. Este tramo de la autopista está incluida en la red de itinerarios para mercancías peligrosas (RIMP). Por otro lado, mientras duren los trabajos, la velocidad en el túnel de Lesarri será de 80km/h y estará controlada mediante radar.